

8.1. Aisialdiko ikastaroak egiteko dirulaguntzak: Begirale eta Zuzendari ikastaroak

Espediente kodea: AIZU

Zer da? Zertarako da?

Hernaniarrei zuzendutako dirulaguntzak: Aisialdirako begirale eta/edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko, euskaraz emandako eta Eusko Jaurlaritzak homologaturiko ikastaroak egiten dituztenentzat.

Nork eska dezake?

18 eta 30 bitarteko gazte hernaniarrek (erroldatua).

Eskaera epea:

Urte amaierara arte.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

- Begirale ikastaroa: matrikularen **%50**, gehienez ere **200 €**.
- Zuzendari ikastaroa: matrikularen **%60**, gehienez ere **200 €**.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Ikastaroaren alderdi teorikoa amaitu ondoren [eskaera-orria](#) behar bezala beteta eta gainontzeko dokumentazioa:

- NAren fotokopia edo baliokidea.
- Ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Aisialdiaren ziurtagiria, non egiaztatuko den: eskatzaileak ikastaroa gauzatu duela, eta alderdi teorikoa gainditu duela; ikastaroaren homologazioa; eta zein hizkuntzatan burutu den ikastaroa.
- Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

Nola eskatzen da?

I **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 - 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

) **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** udalaren www.hernani.eus web orriko

egoitza elektronikoan

+ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Doan

Prozeduraren epea:

Aurreikusitako epea: Hilabete.

Legezko gehieneko epea: 3 hilabete.

Administrazioaren isiltasunaren ondorioa: Dirulaguntza ez ematea.

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura:

- Eskaera eta gainontzeko dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
- Erregistratu eta interesdunari kopia bat eman.
- Haur eta Gazteria Arlori bideratu

Prozeduraren tramiteak:

- Haur eta Gazteria teknikariaren txostena.
- Alkatearen ebazpena, dirulaguntza onartu edo ukatzen duena.
- Udal Kontu-hartzailearen agindua, onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten duena.

Nork onartu behar du?

Alkateak

Tramitatzekeo ardura duen udal saila:



Hernaniko
Udala

euskara
ari du



Haur eta Gazteria Arloa (Aristizabal, 7)

Informazio gehiago: e-posta: gazteria@hernani.eus; **943 337041**

Oharrak:

- Ikastaroak euskaraz izan behar du eta Eusko Jaurlaritzak homologatua.
- Araututako gehienezko epearen barnean eskuratu egin behar da titulua.
- Ordenantzan eskatzen diren gainontzeko agiriak, hau da, erroldatze-agiria eta Udalarekin zorrik ez izanaren agiria, ez da aurkeztu behar izango. Haur eta Gazteria Arloak bere gain hartzen ditu horiek egiaztatzeke egin beharreko gestioak.

Araudi aplikagarria:

- 2024ko otsailaren 13an Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratutako oinarri erregulatzailleak
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta ondorengo erredakzioak.

HERNANIKO UDALA, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua
Gudarien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696
e-posta: hhz@hernani.eus | www.hernani.eus



Hernaniko
Udala

euskara
ari du

